

«Drogak hautatu egiten ziren, baina tortura ez zen hautatzen. Hori dela eta, latzagoa izan zen tortura»

Formatu bitxia du Gerardo Mungia *Pin-txe* iruindarrak kale-ratu duen liburuak. “Harat-honat. Jonki baten trajeria” (Txalaparta) izenburupean bertso sorta bildu du, bizitzan izandako pasadizoak kontatzeko helburuarekin. Pastoralaren antza du, baina ez da pasterala. Eta marrazkigile ugariren ekarpene-kin hornituta dago. Eskola frankistaren garaiko bizipen eta sufrimenduak edota lan munduko borrokak jasotzen ditu, baina Euskal Herrian 1970eko eta 1980ko hamarkadetan drogak izan zuen eragina ere ekartzen du gogora. Europako beste herri askotan bezala barra-barra zabaldu zen droga kontsumoa, bidean hildako andana utziz. Errepresioa ere ez du ahanzten harat-honat ibili eta egun Nafarroako hiriburuko Alde Zaharreko edozein txokotan topa genezaken iruindar honek. Hargina da ofizioz istorioak kontatzeko prosa baino olerkia nahiago duen idazle hau.

Ezohikoa da libururako hautatu duzuen formatua. Bertsoan egin duzu istorio bat kontatzeko. Errazagoa egiten omen zaitzu bertso edo olerkiak idaztea prosan aritzea baino.

Prosaz idazten ez dakit. Hastapenetan ea prosaz idazten nekien probatu nuen. Alperrik. Desastre. Beraz, betidanik, edo aspaldidanik, bertsozalea naizelako, eta, batez ere, pastoralzalea naizelako, bertsoan egitea pentsatu nuen. Idazten hasi nintzen eta hain zaila ez zela ohartu nintzen. Modu berezian hartu nuen eta aiseki hasi nintzen idazten, eta aiseki betetzen nintuen bertsoak. Horrela izan da. Ez dago bertze misteriorik.

Helburua zure bizitzaren laburpena egitea edo zenbait gertaera kontatzea zen?

Hasieran ez nuen pentsatu ere egin liburu bat idatziko nuenik. Hori azken pentsamendua izan nuen hasi nintzelarik bertsoak

betetzen. Hastapenetan ene plazerarendako izan ziren, ez bertzerik. Baina gero hedatzen eta forma hartzen hasi ziren. Eta formatu berezi bat ematea pentsatu nuen. Eta eman nion. Gero irudiak... Zergatik ez erran Pedro Osés, Ernesto Murillo *Simónides*, Joaquín Resano, Mirian Lizarza, Joseba Burusko... lagunei marrazkiak egiteko. Talde zabala da eta batzuk aski sonatuak. Denak adiskideak ditut. Haiengana joan, proposamena egin eta berehala onartu zuten. «Gerardo, nahi duzuna», erran zidaten gaiaren eta helburuaren berri izan zutenean. Denok sufritu baikenuen garai hura. Berehala eskaini zizkidaten euren iduriak eta bistaturik eta apaindurik geratu da liburu. Hartu duen komiki kutsu hori ere pozgarria da. Garai hartako fanzineen irudia hartu du, baina pentsatu gabe. Gidoirik gabe egindako lana da. Hori hemen eta edozein lekutan errepikatuko dut. Ez nuen deusik ere planifikatu. Horrela

GERARDO
MUNGIA «PINTXE»
HARGINA ETA IDAZLEA
Hargina da ofizioz, baina baita idazlea ere.
Bere bizitza bertsoan kontatu du, belaunaldi oso baten gorabeherak
gogora ekarriz.

Martxelo Díaz Aristizabal

atera zen, urratsez urrats. Ez bertzerik. Azken finean, narrazio bat da. Bertsoan egina, baina narrazio bat. Gure adineko jendea –egun 58 urte inguru ditugunok– eskola frankistara joaten hasi ginen garaia da hastapena. Eta bukatzen da 80ko hamarkadaren amaieran. Hor hil zitzaizkidalako adiskide eta ezagun gehienak. Berdin emazte ala gizonkiak.

Beste toki batzuk aipatzen badira ere, Iruñea da liburuaren kokaleku nagusia. Baina erabiltzen duzun euskarak badu Iparraldeko kutsu bat. Iruindarra zara baina Iparraldeko euskarekiko baduzu atxikimendu berezi bat.

Euskararekiko dut atxikimendu, ez Iparraldeko euskararekiko. Euskara euskara da, Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan edo Xiberoan. Hala da. Egia da Hondarribian ikasi nuela dudana oinarria. Hori bai, gero Bortziriak aldera hedatu nintzen. Mikel Tabernak liburuan aipatzen du Iruñeko Hizkuntz Eskolan berekin egon nintzela urte batez. Lanagatik ere –hargina naiz– ene ibilbidea hortik ibili da: Bortzirietatik Baztan aldera, Baztanetik Ziburura, Ziburutik Aezkoa aldera, Irunberri aldera, Zaraitzura, Xiberoa aldera ere, baita Nafarroa Beherera ere. Pirinioetako lexikoa erabiltzen dut. Ez euskara, lexikoa. Euskara batua da, baina lexikoa Pirinioetakoa da. Bi aldeetakoa. Eta aski ongi landua, ene ustez.

Horretan ere ez dago planifikaziorik. Erabiltzen dituzun hitzak zure ibilbidearen ondorio dira. Pastoralaren ildotik doalako liburu ez diozu Zuberoako kutsurik eman nahi izan.

Ez. Bakarrik izan da nik urteak eta urteak eman ditudalako Pirinioetako ibar horietan lanean eta beti kuaderno hartuta. Lan egin ondoren kuaderno hartu eta egun berean entzun edo ikasitakoa apuntatzen nuen. Apuntatu eta apuntatu etxean mordo ederra dut. Horrela ikasi dut

euskara. Hondarribian eman nuen denbora eta gero Hizkuntz Eskolan urtebete, ez bertzerik. Eta gero kalean. Lanean batez ere. Hemen ere ez da planifikaziorik, dakidana idatzi dut.

Zure bizitzaren ibilbidea eginenez, liburu eskolan hasten da, errepresioa nagusi zuen eskola frankistan.

Bai. Eskola inportantea izan da guretzako. Hain inportantea gorrotoa geniola. Errepresioa eta falangismoa bazen minutu oro. Ohildurik atera ginen handik. Eta berehala lanera. Hortakoz markatzen du pittin bat eskolak. Berehala kendu nahi genuen eskola eta berehala lortu genuen ere! 14 urterekin lanera, eskola eta kolegioa pixka bat ahantzi. Kasik bagenuen kontzientzia pixka bat. Kontzientzia anti-frankista zen, ez bertzerik. Momentu horretan mendizaleak ere baginen. Mendizaletasunaren bidez atxikitzen genituen euskara, natura eta gauza horiek guztiak. Prefosta, lanean hasi eta apendizaren mugimenduan hasi ginen, klandestinitatean. Langileen militantziara berehala pasa ginen. CCOO eta mugimendu horretan 16 urterekin hasi ginen. Greba guztietan hartzen genuen parte, erresistentzia mugimendu guztietan.

Jauzi latza da, eskolatik lanera hain gazte pasatzea eta gainera borroka gordin batera.

Bai. Baina hori zen giroa. Lana eskola baino maisu hobe da. Esplotazioa sufritzen duzu, laneko baldintzak ere pairatzen dituzu. Egoera zein den berehala ohartzen zara. Garai hartan oso politizatua zen mugimendua zein jendakia. Politikaz borbor zegoen momentu hura. Oraingoarekin alderatuta arras desberdina zen. Auzoetan, lanpostuetan, eskolan, institutuetan, kalean bizi zen. Edozein gauza politikoa zen. Franco hiltzeaz zen. 19 urte nituelarik hil zen. Kasi trantsizio garaian kokatuko nintzateke lanerako bidea hartu nuelarik.



Argazkiak: Jaogoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Fase honetan mendizaletasuna eta euskal kantak aipatzen dituzu. Horiei esker euskaltzale-tasuna edo abertzaletasunera heltzen zarete.

Nafarrak gara. Iruñekoak. Beraz, ez ginen euskararengandik hain urrun. Hemen mendi guztien izenak euskaraz dira. Baita ibaiak, herriak, errekak ere. Ez zen gauza arrotza guretzat. Mendira joatean berehala konturatzen zara non zauden, ikurrina ikusten duzu bat-batean. Eramaten genituen txano guztiak berde, gorri eta zuriak ziren. Eta guardia zibilak, kontrolak... Hala konturatzen zara ez zaudela Teruelen. Beraz, atxikitzen duzu berehala euskararen kutsadura duen edozein kanta.

Musikak presentzia handia du liburu guztian. Hainbat kanta ere azaltzen dira.

«Evaristo bezalako poeta gutxi daude. Miretsi egiten dut. Brassens, Leo Ferre, Paco Ibañez eta Evaristo. Gaurkotasun handia du oraindik ere»



Bai. Kantak hautatu ditut pastoralaren eraginarengatik. Pastoralan jelkaldi bakoitza bukatzen da bai dantzaz bai kantuz. Eta nik jelkaldi edo kapitulu hauetan polita litzatekeela zerikusirik duten abesti zonbait sartzea ideia ona zela pentsatu nuen. Memoriara etorri zaizkidan baten batzuk sartu ditut.

Hautaketa zabala da: Brassens, La Polla...

Bai. Brassensena Frantzia lanean ibili nintzelako da. Baditut oroitzapen politika abesti horrekin. La Polla Records, nola ez. Gainera hautatu dudana "Delincuencia" abestia poesia hutsa iruditzen zaidalako hautatu dut. Poesia baino, aeri bat da, himno bat. Evaristo bezalako poeta gutxi daude. Miresten dut. Brassens, Leo Ferre, Paco Ibañez eta Evaristo. Niretzat Evaristo maila berekoa da. Gaurkotasun handia ere badute bere

kantak oraindik. Agian ez gara konturatzen, baina Evaristo aparta da. Gazteleraz baino ez du idazten, euskaraz egingo balu leherkari bat izango litzateke!

Evaristorekin eta beste talde batzuekin harreman zuzena izan zenuen, manager lanetan ibili zinelako.

Rock Radikal Vasco delakoa sortu zelarik Iruñeko lagun batek gomiatu ninduen berarekin batera manager gisa ibiltzeko. Eta nik baietz esan nuen, zergatik ez. Ez nuen sobera pentsatu. Horrela ezagutu nituen La Polla Records taldekoak, baita Kortatu eta Cicatrizekoak. Benetan bizpahiru urte horietan bi kanpaina berezi izan ziren: "Martxa eta borroka", alde batetik, eta NATO-ren kontrakoa, bertzetik. Amnistia-aren Aldeko Batzordeko militantea nintzen eta militantzia lan mota hain desberdin batekin uztartu ahal izatea hagitz in-

teresantea iduritu zitzaidan. As-tero kontzertuak ziren. Adibidez, La Polla Recordesekin, Euskal Herrian behinik behin, mila pertsonatik gora izaten ziren kontzertu bakoitzean. Hortik behera ez dut uste ezagutu dudarik. Espainia alderat ere joaten ginen, baita Katalunia alderat ere. Alemanian izan ginen, eta Italian. Benetan urte hagitz bizi eta emankorrak izan ziren. Ene aldetik musikaria ez nintzanez militantzia politikoa eta sortu berri zen musika mundu hori uztartzea izan zen. Kontuan hartu behar da gu nerabe ginearik Pantxo eta Peio eta Etxamendi eta Larralde entzuten genituela! Errobi bazen ere eta *la hostia* zen. Eta Niko Etxart eta Mintxoriak. Dena folkaren inguruan. Gitarra pare bat eta bi kantari, bertzerik ez. Eta bat-batean sartu zen punka. Izugarriko talka. Rocka ere bazen, Barri-cadarekin. Heavy metala ere

bazen. Kontuan hartu frankismotik gentozela eta frankismoak iraun zuen bitartean kasik dena debekatuta zegoela. Edo trakestasun handiak baziren disko horien lortzeko. Bat-batean hil zen Franco eta trantsizio garaiko urte horietan hasi ginen hemen Europatik zetorren guztia zurrupatzen. Dena berria zen eta hemengora moldatua. Ez dakit zenbat talde sortu ziren, estilo desberdinak zituztenak. Horrekin etorri zitzaigun droga guztia ere.

Droga errepresiorako erabili zela esan ohi da. Estatuaren erantzuna izan zela.

Ni horrekin beti zalantzatan nabil. Egun, burua hotzago izanda, historia hurbiletik eta sakonetik bizi izan eta gero, hozki begiratzten dut eta ikusten dudana da garai hartan drogak Europa guztian barreiatu zirela. Baita Ameriketako Estatu Batuetan, Hego Amerikan edo Vietnamen ere. Arrazoi desberdinengatik droga guztiak sortuak eta sartuak izan ziren. Beraz, Euskal Herrian borroka latzean ari ginelako drogak sartu zirela erratea okerra dela uste dut. Ez da errealia. Adibidez, Katalunian gauza bera gertatzen ari zen eta ez zen borroka armaturik. Baita Sevillan, Madrilan, Porton, Berlinen, Erroman, Toulousen eta Parisen ere. Eta ez zen borroka armaturik.

Garaiko afera zela eta ez Euskal Herriko zerbait berezia uste duzu?

Rock mundutik zein mezu entzuten genituen ere gogoratu beharko genuke: bizi gazte eta hil laster, *no future*... Nola *no future*? Badugu geroa. Holako mezuak okerrak eta maltzurak izan ziren. Beraz, esperientzia falta, jakinduria falta, dena frogatzeko grina... Dena uztartuz gero, drogen menpekotasunen loratzea sortzen da.

Urte horien alderik ilunena du-gu droga?

Enezako ilunago izan zen tortura. Francoren garatik ezagutu genuen tortura eta orain artio iraun du. Alde ilunena tortura



izan da nire ustez, Estatuaren errepresioa. Krudelena tortura izan da. Eta kartzelaldiak. Tortura krudelki, bortizki aplikatu zen. Eta orain artio dugu. Ez da bukatu. Hor geratu dira tortura-tzaileak libre, kondenarik gabe. Ikertu gabe sikiera. Oraindik ere baditugu hiru desagertu: Popo Larre, Naparra eta Pertur. Tortura izan da alderik ilunena. Drogak izan dira, baina hautatu egiten ziren. Baina tortura ez zen hautatzen. Hautu bat egiten ahal genuen: borroka egin ala ez egin. Euskara, herria, ekologia. Hori hautu bat zen. Tartean ere drogak ziren, eta hautua ziren. Baina tortura ez zen hautatzen. Berdin tokatzen ahal zitzaion bakarrik borroka antinuklearre-

«Arras ezaguna da drogaren eragina eta afera Euskal Herrian. Herri guztietan eman zen. Baita herri ttipietan ere. Herri guztietan hil ziren lagun bat, bi edo hiru»

an aritzen zen mutiko bati nola auzoko borroketa ibiltzen zenari nola amnistiaren alde borrokatzen zuenari. Berdin zen. Tortura sistematikoki aplikatu baita Euskal Herrian. Hori bai dela desberdina beste tokiekin alderatuz. Ez dut uste Estatuak drogak sartu zituenik, zegoen errealitate bat profitatu zuen. Gazteriarren parte bat suntsitzen ari zela ikustean errazena izan zen Estatuaren errepresioari hobena botatzea. Baina ez da zuzena. Irungo kokaina ere aipatu beharko genuke. Mila kilo antzeman zituzten Irunen eta Donostiara 300 baino ez ziren heldu. Hori zertarako? GAL pagatzeko edo gerra zikina pagatzeko? Ez dakigu. Hori bai da aprobe-txa-

tzea, baina sartzea... Oroitzen naiz nola Amsterdamdik hel-tzen ziren LSD pilulak, *tripi* famatuak. Barra-barra iristen ziren Euskal Herrira. Baina ez Estatuaren bidez, jendeak eskatzen zituelako baizik. Jendea Amsterdamera joaten zen, han erosten zituzten, ekartzen zituzten eta Euskal Herrian barreiatzen ziren. Trafikoarekin ere gauza bera zen. Bazen trafiko xehea eta trafiko handia. Trafiko handiaren inguruan baziren katebegi desberdinak. Azken katebegiraino iristea zaila zen. Baina tartean bazen jende aunitz, *xeheroak*, bere bizioa pagatzeko xeheki saltzen zutenak. Ez dugu patroï bakar bat...

Urte latzak izan ziren eta jende asko hil zen.

Bai. Kalkulu ttipi bat egin dut. Ez naiz soziologoa, hargina eta pintorea naiz, bertzerik ez. Baina Iruñeko Alde Zaharrean 40 gaztetik gora hil ziren. Kalkulu xume bat eginez Iruñean 300 gazte erraz hil zirela esan genezake. Soziologia hartuz, Euskal Herrian lasaiki mintzatu ahal gara 3.000-4.000 gazte hil zirela. 10-15 urteko tartean.

Belaunaldi batentzako kolpe latza izan zen.

Arras ezaguna da drogaren eragina eta afera Euskal Herrian. Herri guztietan eman zen. Baita herri ttipietan ere, adibidez Nafarroako Erriberan, Lizarraldean, Agoitzaldean edo Zangozaldean. Herri guzti-guztietan hil ziren lagun bat, bi edo hiru. Edo ondoren hil ziren, hiesak jota. Edo gibleko eritasunengatik.

Aipatu dituzun musikarien artean Cicatriz taldekoak izan daitezke gazte askok bizitakoaren adibide argia.

Bai. Kasik ikur bilakatu direla esan genezake. Maleruski laurak hil ziren. Gauza bera errepikatu-kodut: bortxaz ez zituen nehork behartu. Bizimodu bat zen. Mezu horiek guztiak nahasten eta uztartzen ziren: bizi *a tope*, bizi laster, *no future*... Denak gezur-rak ziren. Mezu gezurtiak ziren. Batzuek antzeman zituzten eta emaitza zinez kaxkarra zen.